



PE/174 ETA PE/202 EREDUEN ERANSKINA

PE/174 ereduaren adierazpenen atalean eta PE/202 ereduaren zazpigarren klausulan, abenduaren 27ko 2/2004 Legearen Bat 1.3 eta Bat 1.5 atalak (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE) aipatzen dira; horietan egoera hauek azaltzen dira:

– **Abenduaren 27ko 2/2004 Legearen Bat 1.3 atala (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE):** Gizartean baztertuta dauden eta talde hauetako batekoak diren langabeak:

- A) Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten edo, Autonomia Erkidego bakoitzean emandako izenaren arabera, izaera bereko edo antzeko beste prestazioren baten hartzailea.
- B) Aurreko paragrafoan aipatzen diren prestazioak lortu ezin dituzten pertsonak, honako arrazoiak direla eta:
 - Egoiliar izateko edo erroldatuta egoteko edo unitate hartzailea eratzeko behar den denborara ez iristea.
 - Hartzaile izateko lege ezarritako gehienezko denboraldia gainditua izatea.
- C) 18 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago dituzten gazteak, Adingabeak Babesteko Erakunderen batetik datozenak.
- D) Drogazaletasun- edo alkoholismo-arazoak dituzten pertsonak, errehabilitazio edo gizartean txertatzeko prozesuan daudenak.
- E) Espetxeratuak, beren egoerak lan egiteko aukera ematen badie, baldintzapeko askatasuna dutenak eta preso ohiak.
- F) Urtarrilaren 12ko 5/2002 Lege Organikoaren –adingabeen erantzukizun penala arautzen duen aplikazio-eremuan hartzen dituen preso adingabeak, beren egoerak lan egiteko aukera ematen badie, askatasun zainduan daudenak eta preso ohiak.

– **Abenduaren 27ko 2/2004 Legearen Bat 1.5 atala (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE):** Bizikidetzako familia-unitateko kideren batek bortxazko egintzaren bat eragin diolako biktima-izaera egiaztatzen duen langilea.